

MARTIN TXARTELETAN

1

*Dotriña kontuetan
azkarra izana,
amalau wrteragiño
ikasi ebana;
alkate oraindiño
ezta izan baña
dañak deitzen dautsoe:
«Gure Martin jaunia».*

2

*Domeka guzietan
goizeko mezia,
beti erizten dautso
aukeran luzia;
ordu erdi geienez
motxua obia.
Mezatan erlojura
sarritan begia.*

3

*Jokolari aparta
briukan ta musean,
kartak eta dirua
beti dantz aldean.
Gitxitan billatzen da
domekaz etxeen,
kanpotik geienetan
gauerdí artean.*

4

*Garizuma deonporan
oituraz bestera,
lagun-mamiñ batzukin
txartela artzera
jai atsalde batean
joan jaku bera.
Abadia barrezka
sakristi atera.*

DÁMASO,
PASIOTARRA

5

*Kaixo, gure Martiñ,
zu be sakristira?
—Bai ba, ementxe gatoz
txartelai begira.
Berorrek nai ditunak
gizonak ei dira.
Dotriñok ba-dakiguz
lengoak badira.*

6

*Martiñ'en estuasun
eta azkuria,
ezegojan arrua
gure aguria;
zer itanduko eutson
aren arduria!
Txapelari eragin,
gorri arpegia.*

7

*Ara gauza errez bat
topan dautzut emen:
«Aita guria» zenek
esan eban lenen?
Milla aldiz aurten be
entzungo zenduen.
—Ezetz ez diñot baña...
ez naz gogoratzen.*

8

*Eta esango zeunke
ba, zer dan ordaña?
—Mutilletan ba nektin
ori ondo, baña...
—Ia, zer dan bakizu
pekatu ariña?
—Esate baterako...
arimam oreña.*